# PENTEKOSTE JAIAK

## bergara 1998



### ION ANDONI URISABEL ASEGINOLATZA

Duela 26 urte Bergaran jaiotako pintore honek egin du aurtengo Pentekoste jai-egitarauaren azalerako koadroa.

Arte Ederretan lizentziatua da, eta Pintura arloko espezialitatea egina. Nazioarteko ikasketak eginak ditu Sormen Artistikoan.

Taldeekako erakusketa askotan parte hartu du: Ortonovo Italian, Gipuzkoako herrietan 29 pintore bergararren erakusketa ibiltarian eta gainera Donostia, Gasteiz, Elorrio, Zumaia, Zornotza, Bilbo, Gallarta eta Lezo Euskal Herrian; Jaen eta Madril estatuan. Eta Erresuma Batuan Bristolgo erakusketa batean ere parte hartu du. Bakarkako erakusketa bat burutu du Bergaran.

Erasmus beka lortu zuen *UPV-EHU*an Bristol-era joateko 1994an. Eta beste beka bat *Gipuzkoako Diputazioan* Sormen Artistikoa lantzeko 1995ean.

Bere obrak hautatu eta erosi dizkiote *UPV-EHUko* Ondare Artistikoko 1994 eta 1995eko deialdietan. *Vitoria Arte Gasteiz*, plastika garaikideko lehiaketan ere erosi diote bere lan bat. Orain *Bergarako Udala*ren eskariz egin du azalean agertzen den koadroa.

Pinturako saria lortu zuen *Zornotzako biurteroko Arte sariketan* 1996an. Eta azkeneko saria, iaz Lezon egindako *"Elias Salaberria"* lehiaketakoa du, oraingoz.

El cuadro de la portada del programa de fiestas lo ha realizado este pintor bergarés nacido hace 26 años.

Es licenciado en Bellas Artes, especializado en Pintura y ha realizado estudios a nivel internacional en Creación Artística.

Ha participado en diversas exposiciones colectivas: en Ortonovo Italia; en la exposición itinerante de 29 pintores bergareses por localidades de Gipuzkoa, y además, en San Sebastián, Vitoria-Gasteiz, Elorrio, Zumaia, Amorebieta Etxano, Bilbao, Gallarta y Lezo a nivel de Euskal Herria; en Jaén y Madrid a nivel estatal. Participó asimismo en una exposición en Bristol, Reino Unido. También ha expuesto en solitario en Bergara.

Obtuvo la beca Erasmus de la *UPV-EHU* para ir a Bristol en 1994 y otra beca de la *Diputación Foral de Gipuzkoa* para desarrollar la Creación Artística en 1995.

Obras suyas han sido seleccionadas y adquiridas por la *UPV-EHU* en las convocatorias de *Patrimonio Artístico* de 1994 y 1995. El *certámen de Plástica Contemporanea Vitoria Arte Gasteiz* ha adquirido asimismo una obra suya. El cuadro de esta portada lo ha realizado por encargo del *Ayuntamiento de Bergara*.

Entre sus galardones, obtuvo el premio de Pintura en la *Bienal de Arte de Amorebieta-Etxano* en 1996, y su último premio, hasta el momento, ha sido el obtenido el pasado año en el concurso *"Elias Salaberria"* de Lezo.

# agurra



# saludo

Urtero legez, gure herriko jaiak, Pazkuak ospatzera goaz bergararrok.

Udalak, Jai Batzordearen eskutik, herriko kultura eta kirol taldeekin elkarlanean, haur, gazte eta hain gazte ez direnendako jai-egitaraua antolatu du urtean zehar dauzkagun eguneroko arazo horiek egun batzutan bada ere, bazter batera utzi eta jai har dezagun.

Lerro hauen bitartez, kanpoan bizi diren bergararrei di egiten diet, jaietan herrira etorri eta aspaldiko lagunak agurtzeko aukera aprobetxa dezaten. Inguruko herrietako biztanleei ere dei berbera egingo nieke, gehienbat gure eskualdeko herritarrei, Bergarara etorri eta Pazkuak goza ditzaten eta festa egiteko eta elkarrekin igarotzeko jaiak izan daitezen.

Nire agurrik beroena, arrazoi ezberdinak tarteko, gure artean izango ez direnentzat ere.

Zuen Alkatea:

Los bergareses, como todos los años, nos preparamos para disfrutar nuestras Pascuas de Pentecostes.

El Ayuntamiento desde la Comisión de Festejos y en colaboración con colectivos culturales y deportivos, ha elaborado un programa de Festejos para disifrute de niños y adultos, que espero nos haga olvidar por unos días los problemas que nos ocasiona el día a día.

También aprovecho estas líneas para invitar a los bergareses que viven en la actualidad en otras poblaciones a que visiten su pueblo en estas fiestas y aprovechen para saludar a viejos amigos, invitación que hago extensiva a todos nuestros pueblos vecinos, especialmente a los de nuestra comarca, para que sean unos días de diversión y confraternización.

Vaya también mi saludo para los que por una u otra razón no puedan estar con nosotros estos días.

Saludos

**Victoriano Gallastegi Altube**



egitarau ofiziala



# PENTEKOSTE JAIAK
## bergara 1998

**Bergarako Udaleko Jai Batzordeak antolatutako festa eta ekintzen egitarau ofiziala**

## m a i a t z a k 2 4 , i g a n d e a

HAURREN EUSKAL JAIA. Ikus esku programa.

## m a i a t z a k 2 8 , o s t e g u n a

**Arratsaldeko 7:00etan:**
*Simon Arrieta zeramika taldeak* egindako BUZTINEZKO OBJETUEN ERAKUSKETA zabalduko da, Kultur Etxean.

**Arratsaldeko 8:00etan:**
"AZKEN GERRATEA BERGARAN", *Ondo bihurtu* taldeak antolatutako ERAKUSKETA irekiko da Udaletxeko Pleno aretoan.

## m a i a t z a k 2 9 , o s t i r a l a

**Arratsaldez**
Euskal Bizikletako 3. etaparen bukaera.

**Arratsaldeko 8:00etan:**
- Jaiei hasiera emango zaie, etxafleru jaurtiketa eta BITORIANATXOren JAITSIERArekin.



- Jarraian, *Udal Musika Bandaren* KALEJIRA, hiriguneko kaleak alaituz.

- Bitartean, ESKOLA KIROLETAKO SARI EMATEA San Martin plazan.

Ondoren: - Autobusen estazinoko BARRAKAK irekitzea.
- Bideberri aldeko TXOZNAK irekitzea.

**Arratsaldeko 8:30etatik 9:30etara eta gaueko 11:00etatik aurrera:**
San Martin plazan, DANTZALDIA *Alaitz eta Maider taldea*rekin.

**Gaueko 11:00etan:**
*Bergarako Orkestra Sinfonikoa*ren kontzertua, Udal Pilotalekuan.

**Egitaraua**

**1. ZATIA**

"BELTXARGEN AINTZIRA" ........ *Baleteko Suitea* ........ *P. Tchaikowsky*
- Eszena
- Beltxargen dantza
- Balsea

"2. KOARTETOA Dn" ........ *Sokak* ........ *Ch. Wesley*

"ANDALUZIAKO IRUDIAK" ........ *M. Gz. Bastida*

**2. ZATIA**

"EVITA" ........ *Musikala* ........ *A. Ll. Webber*
*Hitzak : Tim Rice*
*Adaptazioa : A. Gz. Chirlaque*

- Requiem for Evita
- Oh what a circus
- On this night of a thousand stars
- Eva, beware of the city
- Buenos Aires
  Another suitcase in another hall
- Goodnight and thank you
- I´d be surprisingly good for you
- Don´t cry for me Argentina
- Waltz for Eva and Che
- You must love me
- Lament
- Final

*Parte hartzaileak :* Bergarako Orkestra Sinfonikoa eta Bergarako Abesbatza
*Bakarlariak :* Mireia Osinaga eta Joxean Rodriguez
*Bergarako abesbatzako Zuzendaria :* Imanol Urzelai
*Aurkezpeneko testua :* Manu Díaz ~ *Aurkezlea :* Alberto Gorritiberea

*Zuzendaria :* Alfredo Gz. Chirlaque

**Gaueko 10:30etan:**
ROCK KONTZERTUA Bideberrin: *Fang, Mercromina, B-Violet* eta *The Elevators* taldeekin.







## maiatzak 30, larunbata

**Goizez:**
Euskal Bizikletako 4. etaparen irteera.

**Goizeko 9:00etan**
15 urtez azpikoentzat XVIII. HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA SARIKETA librea. Izen ematea Kultur Etxean.

**Goizeko 10:00etan**
DIANA, auzoak esnatu ondoren San Martin plazan bilduz
- Bolu auzotik *Kobok dultzaineroak,*
- Oxirondotik *Iosu eta Iokin soinujoleak,*
- Labegaraietatik *Udal Txistulari Banda.*

**Ondoren**
MIZPURUALDERA BISITA egingo dute dultzainero eta txistulariek.



**Eguerdiko 11:30etan**
Elkarteen arteko SUKALDARITZA LEHIAKETA San Martin plazan, trikitilariek alaituta.

**Arratsaldeko 4:30etan**
PILOTA PARTIDU interesgarriak Udal Pilotalekuan.

**Arratsaldeko 6:00etan**
ZEZEN-TXULIATZAILE nafarren ERAKUSTALDIA, txarangak alaituta, zezen plazan.

**Arratsaldeko 7:30etan**
Erraldoi, kiliki eta buruhandien KALEJIRA, *Udal Txistulari Bandak, Kobok,* Bergarako *dultzainero taldeak* eta *Kukumako hankaluzeek* lagunduta.

**Ondoren**
BONBA JAPONIARRAK haurrentzat, San Martin plazan.

**Arratsaldeko 8:00etatik 9:00etara eta gaueko 11:30etatik aurrera**
DANTZALDIA *Akelarre* taldearekin, San Martin plazan.

**Gaueko 10:30etan**
ROCK KONTZERTUA, Bideberrin: *Sexy Sadie, El desván del macho, Atom Rhumba* eta *Saturno* taldeekin.







## maiatzak 31, igandea

**Goizeko 8:00etan**
*Udal Txistulari Bandarekin* ALBORADA.

**Goizeko 8:30etan**
*Elgoibarko dultzaineroen* eta *Azpeitiko Udal Musika Bandaren* KALEJIRA, entzierroaren ibilbidetik, zezen plazaraino.

**Goizeko 9:00etan**
Lehen ENTZIERROA Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren ENBOLATUAK, animatzaile trebatuekin eta *Azpeitiko Udal Musika Bandak* eta *Elgoibarko dultzaineroek* girotuta.
Enbolatuen ondoren, *Azpeitiko Udal Musika Bandak* eta *Elgoibarko dultzaineroek* herriko kaleak alaituko dituzte.

**Ordu berean**
1.go eta 2. mailako afizionatuentzat TXIRRINDULARI LASTERKETA "LXIII.Pentekoste Saria". Ibilbidea esku programan.



**Goizeko 10:00etan**
Ollagorra elkarteak antolatutako PLATER TIRAKETA, San Juan auzoan.

**Goizeko 11:00etan**
MEZA NAGUSIA *San Pedro elizan, Udalbatza* partaide dela, eta *Udal Musika Bandak* eta *Udal Txistulari Bandak* lagunduta.

**Goizeko 11:30etan:**
Hamabost urtez azpiko bikote gazteentzako XXI. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan.
Lehenengo 10 bikoteak sailkatuko dira.



**Eguerdiko 12:30etan**
Udal Musika Bandaren KONTZERTUA, Espoloian.

**Egitaraua**

| | | |
|---|---|---|
| "POMPA Y CIRCUNSTANCIA" 1. | | *E. Elgar* |
| "LA FORZA DEL DESTINO" | *Obertura* | *G. Verdi* |
| "AQUARIUM" | | *J. de Meij* |
| "MUSUAREN KONDAIRA" | *Aukeraketa* | *Soutullo y Vert* |
| "HOORAY FOR HOLLYWOOD" | | *R. A. Whiting* |

*Zuzendaria* : Alfredo Gz. Chirlaque

**Ondoren**
*Erribera eta Mendia* jotari taldeak NAFARROAKO JOTAK ETA KANTAK abestuko ditu herriko kaleetan zehar.

**Arratsaldeko 4:30etan**
PILOTA PARTIDU interesgarriak *Udal Pilotalekuan.*




**Arratsaldeko 5:15etan**
San Martin plazatik zezen plazaraino KALEJIRA *Azpeitiako Udal Musika Bandak* eta *Elgoibarko dultzaineroek* lagunduta. Parte hartuko dute mandakoak, agoaziltxoak, agintariak eta herriko zaletuen kuadrilak. Mokadu bat hartuko dute Alzelai-enean.

**Arratsaldeko 5:30etan**
Bikote gazteentzako XXI. EUSKADIKO DANTZA TXAPELKETA San Martin plazan, *Udal Txistulari Bandak* lagunduta.

**Arratsaldeko 6:00etan**
ZEZEN FESTA, Salamanca-ko *Lopez Chaves ganaduzalearekin* antolatua, *Zezen zaleak taldearen* laguntzaz

**Ondoren**
*Azpeitiako Udal Musika Banda* herriko kaleak alaituz.



**Gaueko 11:30etan**
*Oropéndola Orkestrarekin* camp DANTZALDIA, San Martin plazan.

# ekainak 1, astelehena

**Goizeko 8:30etan**
KALEJIRA, *Los Incansables* txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik, zezen plazaraino.

**Goizeko 9:00etan**
Bigarren ENTZIERROA, Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren ENBOLATUAK, animatzaile trebatuak parte hartuz eta *Los Incansables* txarangak alaituta.

**Goizeko 11 :30etatik 13:30etara**
Seminarioko patioan haurrentzako JOLAS PARKEA: karrak, gaztelu puzgarriak, etabar.





**Goizeko 11:30etatik 14:00etara**
Barraketan haurrentzat prezio bereziak izango dira.

**Ordu berean**
Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

**Eguerdiko 12:30etan**
*Udal Musika Bandaren* KONTZERTUA, Espoloian.

**Egitaraua**

| | | |
|---|---|---|
| "SAN MIGELPE" | *Martxa (1. emanaldia)* | *A. Gz. Chirlaque* |
| "TANCREDI" | *Obertura* | *G. Rossini* |
| "ARLESEKO EMAKUME BASERRITARRA" | *Aukeraketa* | *E. Rosillo* |
| "OVERTURE TO A NEW AGE" | | *J. de Haan* |

*Zuzendaria* : Alfredo Gz. Chirlaque

**Arratsaldeko 4:00etatik 8:00etara**
Seminarioko patioan jarritako JOLAS PARKEAren jarraipena, haurrentzat.

**Arratsaldeko 4:30etan**
PILOTA PARTIDU interesgarriak
Udal Pilotalekuan.



**Arratsaldeko 6:00etan**
*Gorritiren* ZEZEN IKUSKIZUNA, *Los Incansables* TXARANGAK animatuta, zezen plazan

**Ondoren**
*Los Incansables* txarangaren KALEJIRA.

**Gaueko 10:30etan**
ROCK KONTZERTUA, Bideberrin: *Hot dogs, Joxe Ripiau, Assholes* eta *Fly shit taldeekin*.

**Gaueko 11:00etatik aurrera**
*Tarantella Orkestrarekin* CAMP DANTZALDIA, Espoloian.

# ekainak 2, asteartea

**Goizeko 8:30etan**
KALEJIRA, *Los Incansables* txarangak alaituta, entzierroaren ibilbidetik zezen plazaraino.

**Goizeko 9:00etan**
Hirugarren ENTZIERROA Barrenkaletik zezen plazaraino. Ondoren ENBOLATUAK, animatzaile trebatuekin eta *Los Incansables* txarangarekin.

**Goizeko 11:30etatik 13:30etara**
HERRI TRENAren bira, Fraiskozuri plazatik irtenda.



**Eguerdiko 12:00etan**
*Aranzadi ikastolako* DANTZA taldearen ERAKUSTALDIA, San Martin plazan.

**Eguerdiko 1:00etatik aurrera**
*Jardun*-ek antolatuta, San Martin plazan: POTEOA, trikitilariekin, HERRI BAZKAIXA eta bazkal ondoren, JOKUAK.

**Arratsaldeko 4:30etan**
PILOTA PARTIDU interesgarriak, Udal Pilotalekuan.

**Arratsaldeko 5:00etatik 9:00ak arte**
HERRI TRENAren bira.

**Arratsaldeko 6:00etan**
*Manzarbeitia ganaduzalearen* ENBOLATUAK, herriko kuadrileentzat zezen plazan, *Los Incansables* txarangak alaituta.





**Ondoren**
*Los Incansables* txarangarekin KALEJIRA.

**Egun osoan zehar kaleak alaitzen:**
- *Xatre eta Zaharra*, eta *Iosu eta Iokin* TRIKITILARI *bikoteak*.
- *Los Incansables* TXARANGA.

**Arratsaldeko 8:00etatik 9:00etara eta gaueko 11:00etatik aurrera**
DANTZALDIA *Kiñu taldea*rekin, San Martin plazan.

**Gaueko 12:00etan**
San Martin plazan elkartzea, eta BITORIANATXOren igoera.

## ekainak 6, larunbata

**Eguerdiko 12:00etan**
*XIII. Literatur lehiaketaren* SARI BANAKETA, Zabalotegiko aretoan.

## ekainak 7, igandea

**Goizez**
GORLARA VIII. AUTO IGOERA, *Bergara Racing Taldeak* antolatuta.

## ekainak 10-11



"GERRA ZIBILA BERGARAN: 1930-1939"
ekitaldien barnean ZINE
EMANALDIAK Novedades aretoan. Proiektatuko diren pelikulak:

**EKAINAK 10, asteazkena, arratsaldeko 8:00etan**
- *"FRENTE DE VIZCAYA Y 18 DE JULIO" FET y JONS*-ek egina
- *"ALSASUA 1936" Helena Tabernak* egina.

**EKAINAK 11, osteguna, arratsaldeko 8:00etan**
- *"LA VIEJA MEMORIA" Jaime Caminok* egina.

## ekainak 14, igandea

**Eguerdiko 12:30etan**
*Musika Eskolaren* UDABERRIKO KONTZERTUA, Udal Pilotalekuan. Ondoren, bazkari herrikoia Espoloian.

***Jai Batzordeak ez du bere gain hartzen jaiegun hauetan gerta daitezkeen kalteen erantzunkizunik.***



# KIROL EGITARAUA



## MAIATZAK 23, larunbata



**Eguerdiko 12:00etan**, Udal pilotalekuan:
AFROBIC-eko erakustaldia.

## MAIATZAK 29, ostirala

ESKOLA KIROLEKO FINALAK

• ***FUTBOLA***

| | |
|---|---|
| BENJAMINAK | 5:15etan |
| ALEBIN MUTILAK | 5:15etan |
| ALEBIN NESKAK | 6:15etan |

*Lekua: Ipintza institutuan*

• ***SASKIBALOIA***

| | |
|---|---|
| BENJAMINAK | 5:15etan |
| ALEBIN MUTILAK | 6:00etan |
| ALEBIN NESKAK | 6:45etan |



*Lekua: San Martin ikastetxean*

• ***ESKUBALOIA***

| | |
|---|---|
| BENJAMINAK | 5:15etan |
| ALEBIN MUTILAK | 6:00etan |
| ALEBIN NESKAK | 6:45etan |

*Lekua: San Martin ikastetxean*

Sari ematea, BITORIANATXOren jeitsieraren ondoren egingo da.

## EKAINAK 6, larunbata




**Goizekol 11:00etan**
Haur, kadete eta junior mailakoentzako ATLETISMO FROGA KONBINATUAK, Atletiko Zaleak Klubak antolatuta, Agorrosingo zelaian.
Egingo diren frogak hauek izango dira: atletismoa, luzera saltoa, hesiak, erreleboak:
60 m., 100 m., 1.500 m. Ondoren, sari banaketa.

**Ordu berean**
Xake elkarteak antolatutako PROMOZIOKO TXAPELKETA haurrentzat, jubenilentzat eta kadeteentzat, elkartearen Zabalotegiko aretoan.

**Arratsaldeko 4:00etan**
XAKE azkarreko EUSKADIKO TXAPELKETA, Migel Altuna Institutu berriko gimnasioan, eta XAKEko *Adiskidetasun Kluben ZIRKUITUA*, leku berean.

## EKAINAK 7, igandea



**Goizeko 9:30etan**
TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA, "XXVII. Bergarako Hiria saria", Migel Altuna Institutu berriko gimnasioan.

**Goizeko 10:00etan**
Euskal Herriko iparralde eta hegoaldekoen arteko XAKE LEHIA, Migel Altuna Institutu berriko gimnasioan.

**Arratsaldeko 16:30etatik 22:00etara**
XAKE partida azkarren TXAPELKETA IREKIA.




# ETXEBERRIA

Bitxitegia
Erlojutegia

Antzinako hormako erlojuen
konponketa eta zaharberritzea

Geure bitxitegi tailerra
Edozein bitxi mota itxuraldatzen dugu

Joyería
Relojería

Reparación y Restauración de
relojes antiguos de pared

Taller propio de joyería
Se transforman todo tipo de joyas

Bidekurutzeta, 16 - Tel. 943 76 23 94 - 20570 BERGARA




# ART
## DE FAIRE
# LE PAPIER.

Par M. DE LA LANDE.

De el Deposito de Guypuzcoa Año de 1767

Peñaflorida

*«L'encyclopédie» Diderot eta D'Alembert 1751tik aurrera argitaratutako ale baten azala, Peñaflorida kondearen sinadurarekin. Bergarako Udal Agiritegia. Erret Mintegiko fondoa.*

Jose Antonio Zabala Unzurrunzagak, bergarar peto-petoak, urteetan zehar argi erakutsi du bere jaioterriarekiko maitasuna eta Bergararekin zerikusirik duen guztiarekiko interes nabarmena.

Bergararrok ez ditugu ahaztu Bergarako Kultur Ekintza sortzen eta lehen urtetako lanean egin zituen ahaleginak, ez eta Alkate gisa egindako lan handi eta emankorra, edo gure Historiaren ikerketan zein langile nekaezina den ere.

Orain egun gutxi bere «IDATZIAK» lana dohaintzan eman dio Bergarako Udal Agiritegiari eta bertan Telesforo Aranzadi, Sanchez Toca, Julian Tellaetxe, Koldo Eleizalde, Kruz Angel Gallastegi eta Justo Garate goratzen ditu. Bergarako semeak eta Arte, Letra eta Zientzien arloan lehen mailako pertsonaiak guztiak ere.

Aurten, Zabalaren idazlan bateko pasartea aukeratu dugu jaietako programan sartzeko, bertan aipatzen diren datuak oso interesgarriak direlakoan.

José Antonio Zabala Unzurrunzaga, bergarés por los cuatro costados, ha demostrado a lo largo de los años su cariño y su gran interés por todo lo referente a su pueblo natal.

En Bergara, no olvidamos sus desvelos en la fundación y primeros años de andadura de Promoción Cultural Bergaresa, ni su intenso y fructífero trabajo como Alcalde, ni su infatigable labor como estudioso de nuestra Historia.

Hace pocos días, ha donado al Archivo Municipal de Bergara su obra «IDATZIAK» en la que glosa a Telesforo de Aranzadi, a Sánchez Toca, Julian Tellaetxe, Koldo Eleizalde, Cruz Angel Gallastegui, a Justo Garate..., todos ellos hijos de Bergara y figuras de primera magnitud en las Artes, las Letras y en la Ciencia.

En esta ocasión, hemos elegido parte de uno de sus trabajos, estimando que son de sumo interés los datos que en la misma se señalan para su inclusión en el programa de fiestas.

Jose Antonio: eskerrik asko
*Victoriano Gallastegi Altube*

## BERGARA KULTURALA

### XVIII. mendearen azken herena
### (1. Zatia)*

*Ilustrazioaren mendea*

XVIII. mendearen azken herenean, Ilustrazioa deritzon mugimenduak eragin zuen Bergarako kultur historian. Horregatik eta ezeri heldu baino lehen, beharrezkoa da kontzeptu hau definitzea labur-labur bada ere.

XVIII. mendea Ilustrazioaren edo argien mendea izendatu izan da iraganbide bat adierazten duelako, alegia, herriaren erabaki-ahalmena ezereztuta zegoen gizartetik, Frantzian mendearen erdi aldera hainbat filosofo razionalistaren ideiak sartu zireneko egoerara. Filosofo horiek, besteak beste, Rousseau, Montesquieu eta Voltairek, ezarritako ordena, botere absolutuak eta nobleziaren eta kleroaren pribilegioak kritikatu eta pentsamendu-askatasuna, industriaren garapena, herriko klaseen hezkuntza eta abar aldarrikatu zituzten. Aldi berean, D'Alembert-en laguntzarekin Diderot-ek sortutako *"L'encyclopédie»* kaleratu zen, aipaturiko ideia horiekin bat etortzeaz gain, horiek hedatzeko bitartekoa izan zena (bitxikeria gisa esan daiteke, zifra erlatiboetan, Bergaran izan zuela ezarpenik handiena, zeren 1770ean hamaika harpidedun baitzituen). Logikoa denez, ideia horiek oso harrera ona izan zuten klase ertainen, burges artisauen eta, batik bat, intelektualen artean.

1762an Rousseauren funtsezko lana izan zen *«Kontratu soziala»* argitaratu zen. Bertan esaten zuen subiranotasuna Herriarengan dagoela, herria eskubide naturalak dituzten gizabanakoek osatzen dutela eta eskubide horiek Estatuari uzten zaizkiola zaindu eta berma ditzan gero berriro hiritarrei eskubide zibil gisa itzultzeko. Horixe da herriak Estatuarekin egiten duen kontratu edo gizarte-hitzarmena, Estatuarekin edo hitzarmen horren bidez agintea jasotzen duen Estatuaren ordezkariarekin. Baina garbi geratu behar du, horrek boterea abusatzen badu edo errespetatzen ez badu, kontratua hautsi egiten duela eta herriak bere jatorrizko subiranotasuna eskura dezakeela. Urte batzuk lehenago, 1748an,botere Legegilea, Betearazlea eta Judiziala bereiztea proposatzen zuen *«Legeen Izpirituaz»* kaleratu zuen Montesquieuk.

Hori guztia izan zen geroago, 1789an, Frantziako Iraultzaren sorrera eragin zuena.

Rousseauren ideiak Frantziako Iraultza bera baino nahiko lehenago sartu ziren Penintsulan, eta intelektualen artean eragin berezia izan zuten. Euskal gizartea ere ez zen kanpo geratu, ez baita ahaztu behar Euskal Herriaren Adiskideen

* *Jose Antonio Zabala Unzurrunzaga. «Idatziak» Argitaratu gabeak. «Bergara Kulturala» kapituluko I. zatia jasotzen dugu aurten. Datorren urtean argitaratuko dugu bigarrena. Bergarako Udal Agiritegiari egileak dohaintzan emandako fondotik hartua.*

## BERGARA CULTURAL

### Ultimo tercio del siglo XVIII
### (Parte I)*

*El siglo de la Ilustración*

El último tercio del siglo XVIII en la historia cultural de Bergara está influido por el movimiento llamado de la Ilustración, por ello y como cuestión previa es necesario definir este concepto, aunque sea resumidamente.

El siglo XVIII es llamado de la Ilustración o siglo de las luces, ya que marca el paso de una antigua sociedad en la que el poder de decisión del pueblo estaba anulado, a otra situación en la que a mediados de dicho siglo se produce en Francia la irrupción de las ideas de los filósofos racionalistas como Rousseau, Montesquieu, Voltaire, etc. que critican el orden establecido, los poderes absolutos, los privilegios de la nobleza y el clero, propugnando la libertad de pensamiento, el desarrollo de la industria, la educación de las clases populares, etc. y aparece simultáneamente *la "Enciclopedia"* creada por Diderot en colaboración con D'Alembert cuyo contenido se identifica con dichas ideas y es el instrumento de difusión de las mismas (como anécdota, es curioso reseñar que, en cifras relativas, era Bergara donde tenía mayor implantación, pues contaba en 1770 con once subscriptores). Como es lógico, estas ideas fueron bien aceptadas por las clases media, burguesa artesanal, y sobre todo por los intelectuales.

En 1762 se publica «El Contrato Social» obra fundamental de Rousseau, en la que afirma que la soberanía reside en el Pueblo que está formado por individuos que ostentan derechos naturales, los cuales son cedidos al Estado, el cual los tutela y los garantiza, reintegrándolos a sus ciudadanos con el nombre de derechos civiles. Este es el contrato o pacto social del pueblo con el Estado o quien lo represente que queda investido de autoridad por mediación de dicho pacto, pero bien entendido que si abusa del poder o no lo respeta, viola el contrato u el pueblo puede recobrar su soberanía originaria. Algunos años antes, en 1748, Montesquieu había publicado «El espíritu de las Leyes» donde plantea la separación de los poderes Legislativo, Ejecutivo y Judicial.

Todo ello fue creando el caldo de cultivo que más tarde, en 1789, dio lugar al inicio de la Revolución Francesa.

Las ideas de Rousseau se habían infiltrado en la Península con bastante anterioridad a la Revolución francesa, calando con preferencia en sectores intelectuales y la sociedad vasca no era ajena a dichas

* *José Antonio Zabala Unzurrunzaga. «Idatziak» Obra inédita. Este año incluimos la 1ª parte del capítulo «Bergara Cultural». El año que viene será la segunda y última parte. Archivo Municipal de Bergara. Fondo donado por el autor.*

Elkartearen fundatzaileetako bat izan zen Manuel Inazio Altunak, esaterako, Rousseau lagun handia zuela eta nabari-nabaria zela honako lan honen helburu den Bergarako Erret Mintegian entziklopedistak begiko zituztela.

Filosofo razionalistek herritarrei kultura eta ongizatea ematea erabaki zuten euren ekintzen jabe izan zitezen. Haien erabakiak zuzenak izateko, bestalde, burujabetasuna eman behar zitzaien kulturaren bitartez. *«Jakinduriak askatuko du gizakia»* zioen Rousseauk. Hori herritarren artean zabaltzeko beharrezko berrikuntzak bultzatu ziren, baina herritarren beren partaidetza ez zen baimentzen; horixe izan zen alegia fenomeno hau egoki laburbiltzen duen *«Dena herriarentzat, baina herriak parte hartu gabe»* esaldi ospetsua sortarazi zuena.

Dena dela, pentsamendu ilustratuarekiko atxikipena ez zen inoiz ere erabatekoa izan, zeren eta erlijioei egiten zieten kritikak fedearen ordez arrazoia proposatzen zuen eta horrek ez zuen oso harrera ona izan intelektualen estamentu gehienen artean. Esan liteke euskal gizartean bizi izan zen Ilustrazioa Ilustrazio kristaua izan zela. Hala eta guztiz ere, erabilgarriak ziren ezagupen entziklopediko guztiak onartu egin ziren. Hortik dator, hain zuzen ere, eskola tekniko espezializatuak sortzeko interesa (mineralogia eta metalurgia, grabatu, nautika, irute, marrazketa eta abarri buruzkoak). Unibertsitate-irakaskuntza kritikatu eta herriarentzat probetxugarriak ziren teknikak goraipatzen zituzten. Campomanesek esaten zuen orratz egileak gizartearentzat mesedegarriagoak zirela Aristoteleren iruzkingileak baino.

Uste dugu pentsamendu ilustratuaren ideia nagusiak definitu ahal izan ditugula eta esan beharra dago, bere alderdi negatiboa izan bazuen ere, gehiago eta ugariagoak izan zirela bere balio positiboak; izan ere, egindako lan kritikoari esker, erlijioaren esparruan atxikipen barroko, sineskeria eta mitoak baztertu ziren eta unibertsitatearen eremuan hezkuntza gizateriaren zerbitzura jarri zen. Zientziak, Arteak eta Lanbideak garatu ziren eta, halaber, gizartea miseria eta ezjakintasunetik askatzeko baliagarria izan zitekeen guztia.

Esan liteke Ilustrazioaren fenomenoak Bergaran izan zuela bere adierazpenik distiratsuena eta bertako Erret Mintegian ilustratuek hezkuntzari zegokionez ezartzen zituzten «estilo» eta jarraibideak garatu ahal izan zirela.

*Peñafloridako kondea*

Lan honen atal guztiak garatu ahal izateko, behar-beharrezkoa izan zen gizon probidentzial baten ikuspegia, alegia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea zelakoaren fundatzaile izan zen Frantzisko Xabier Maria Munibe Idiakez zaldun azkoitiarrarena. Hori dela eta, ezinbestekoa da pertsonaia honen azalpen biografiko laburtxo bat egitea.

Geroago Peñafloridako zortzigarren kondea

ideas pues no hay que olvidar que por ejemplo Manuel Ignacio de Altuna, uno de los fundadores de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País era gran amigo de Rousseau y en el Seminario Patriótico Bascongado, objeto de este trabajo, las simpatías por los enciclopedistas resultan evidentes.

Los filósofos racionalistas decidieron dar al Pueblo cultura y bienestar para que fueran dueños de sus propios actos, y a fin de que sus decisiones fueran justas, había que emanciparle a través de la Cultura. *«El saber hará libre al hombre»* decía Rousseau. Se apoyaban las reformas necesarias para su extensión a las clases populares pero no se autorizaba su participación, de ahí la famosa frase de *"Todo para el Pueblo pero sin el pueblo»* y que resume acertadamente el fenómeno.

Ahora bien, nunca hubo una total adhesión al pensamiento ilustrado, ya que su crítica a las religiones reveladas sustituyendo la fe por la razón, no fue aceptada por gran parte de estamentos intelectuales y puede afirmarse que la Ilustración en la sociedad vasca fue una Ilustración cristiana. En cambio fueron aceptados todos los conocimientos enciclopédicos que resultaran útiles. De ahí el interés en la creación de escuelas técnicas especializadas en sus diversos niveles, de Mineralogía y metalurgia, de grabado, de náutica, de hilado, de dibujo, etc. Criticaban la enseñanza universitaria y en cambio exaltaban la técnica que fuera útil al pueblo. Decía Campomanes que los fabricantes de agujas eran más útiles a la Sociedad que los comentaristas de Aristóteles.

Creemos que a efectos divulgativos habremos podido definir las principales ideas del pensamiento ilustrado que aunque tuvo su parte negativa, fueron más sus valores positivos, ya que su labor crítica sirvió de revulsivo para desterrar en materia de religión adherencias barrocas, supersticiones y mitos y en el Campo Universitario que la formación educativa fuera orientada al servicio de la humanidad. Se desarrollaron las Ciencias, las Artes y los Oficios y todo lo que pudiera ser útil para liberar a la sociedad de la miseria y la ignorancia.

Puede afirmarse que el fenómeno de la Ilustración, tuvo su más brillante expresión en Bergara; que en su Seminario Patriótico Bascongado pudieron desarrollarse el «estilo» y directrices que en el aspecto educativo imponían los ilustrados.

*El Conde de Peñaflorida*

Fue necesaria la visión de un hombre providencial, el caballero azkoitiano Francisco Xabier María de Munibe e Idiaquez, fundador de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y al que necesariamente tenemos que dedicar una resumida semblanza, para poder desarrollar este trabajo en sus diversas fases.

El que más tarde sería octavo Conde de

izango zena 1829ko urriaren 23an sortu zen Frantzisko Munibe Idiakez eta Maria Inazia Idiakez Insausti gurasoengandik. Gizarte-klaserik gorenekoa bazen ere eta bere garaian estamentuen artean zegoen banaketa gora-behera, lehen eta bigarren irakaskuntzak Azkoitiko Jesuiten Eskolan egin zituen eta bertan, denen arteko elkarbizitzan, bere nortasuna gorpuztuz joan zen. Hamahiru urtetik hamazazpira arte Toulouseko Jesuiten Eskolan egon zen eta han Zientziak eta Humanitateak ikasi zituen irakaslerik bikainenen eskutik.

1747ko ekainaren 3an, oraindik hamazortzi urte bete gabe zituelarik, Areizagako baroi-baronesen alaba zen Maria Josefa Areizagarekin ezkondu zen Oñatin. Azkoitiko alkate izan zen 1747-48 biurtekoan zehar eta, 1755 eta 1765ean ere, berriro kargu hori betetzeko aukeratu zuten. 1750, 1754, 1758 eta 1761 urteetan, berriz, Gipuzkoako Aldun Nagusi izan zen eta 1758an baita Gorteetarako Diputatu ere.

Peñafloridak, Frantzian egin zuen egonaldiari, bere hezkuntza entziklopedikoari eta Ilustrazioaren izpiritutik edan zuten irakasleekin izandako harremanei esker, kulturaren eta gizarte-ongizatearen artean erlazioa dagoela berretsi ahal izan zuen eta, poliki-poliki, bere herrikideen kultur maila hobetzen saiatzeko nahia areagotuz joan zitzaion. Julio Urkixok esan zuenez, *«Kondea, Toulousetik itzultzean gure Herrian hainbat ikasketek zuten atzerapenaz konturatu zenetik, egoera tamalgarri hau gainditzeko era bilatu nahian aritu zen buru- belarri».*

Toulouseko irakasle-ohiekin eta Europako kultur zentroekin zituen harremanak ez ziren inoiz hautsi eta bere proiektu kultural handia ahalik eta egokien bideratzeko ideia eta irizpideak elkartrukatzen zituzten.

*Herriaren Adiskideen Elkartearen aurrekariak*

1756 urte inguruan, Kondeak «solasaldi akademiko» batzuei ekin zien «Azkoitiko zalduntxoak» deituak izan ziren hainbat adiskiderekin. Lagun horien artean, Xabier Maria Munibez gain, Manuel Inazio Altuna eta Joakin Egia, Narroseko Markesa, nabarmentzen ziren. Horiei Aita Islak *«Azkoitiko hirukotea»* izena ezarri zien. Egunero egiten ziren hizketaldi horietan, Zientzia, Humanitate, Filosofia, Musika eta abarri buruzko gaiak eztabaidatzen ziren eta Kondea bere ideia eta proiektuak azalduz joan zen.

1763ko uztailaren 2an Villafranca de Orian (gaur egungo Ordizian) egin ziren Biltzar Nagusietan, Peñafloridak eta beste hamabost lagunek oso izenburu luzea zuen proiektu bat aurkeztu zuten: *«Elkarte ekonomiko baten edo Nekazaritza, Zientzia eta Arte praktikoen eta Merkataritza Akademiaren PLANA, Gipuzkoako probintzia T.N. eta T.L.aren egoerari eta ekonomiari egokitua».* Plan hori izenpetu zutenen artean hainbat bergarar agertzen zaizkigu, hala nola, Migel Inazio Olaso, Bizente Lili

Peñaflorida, vino al mundo el 23 de Octubre de 1829, siendo sus padres, Don Francisco de Munibe e Idiaquez y Dña. María Ignacia de Idiaquez e Insausti. Aunque pertenecía a la más alta clase social y a pesar de la separación de los diferentes estamentos existentes en su época, cursó las enseñanzas prima ria y secundaria en el Colegio de los Jesuitas de Azkoitia donde en la convivencia con todos se fue modelando su carácter. Desde los trece a los diecisiete años permaneció en el Colegio de los Jesuitas de Toulouse, donde aprendió Ciencias y Humanidades con los profesores más eminentes. El día 3 de Junio de 1747, sin haber cumplido dieciocho años contrajo matrimonio en Oñati con Dña. María Josefa de Areizaga, hija de los barones de Areizaga. Fue Alcalde de Azkoitia durante el bienio 1747-48 y reelegido para dicho cargo en los años 1755 y 1765. Fue Diputado General de Gipuzkoa los años 1750, 1754, 1758 y 1761 y Diputado a Cortes en 1758.

La estancia de Peñaflorida en Francia, su formación enciclopédica y su relación con Profesores inspirados en el espíritu de la Ilustración, le reafirmó en la relación existente entre cultura y bienestar social y fue creando en él una toma de conciencia en su deseo de consagrarse a elevar el nivel cultural de sus conciudadanos. Según refiere Julio de Urquijo *«el Conde sólo se propuso, desde que a su vuelta de Toulouse se dio cuenta del atraso de ciertos estudios en nuestro País, buscar el modo de hacer desaparecer tan lamentable estado de cosas».*

Fue constante su relación con sus antiguos profesores de Toulouse y con centros culturales europeos, intercambiando con ellos ideas y criterios para perfilar de la manera más acertada su gran proyecto cultural.

*Antecedentes de la Sociedad de Amigos del País*

Hacia 1756 inició el Conde unas «tertulias académicas» con una serie de amigos llamados «Caballeritos de Azkoitia» entre los que descollaban, además de Xabier María de Munibe, Manuel Ignacio de Altuna y Joaquín de Eguia, Marqués de Narros y a los que el Padre Isla significó con el apelativo de *"triunvirato de Azkoitia"*. En estas tertulias, que eran diarias, se debatían temas sobre Ciencias, Humanidades, Filosofía, Música, etc. y en ellas el Conde fue exponiendo sus ideas y proyectos.

En las Juntas Generales del 2 de Julio de 1763 celebradas en Villafranca de Oria, hoy Ordizia, Peñaflorida y quince amigos más, presentaron un Proyecto de largo título *"PLAN de una Sociedad económica o Academia de Agricultura, Ciencias y Artes útiles y Comercio, adaptado a las circunstancias y economía particular de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa"*. Entre los firmantes del Plan figuraban varios bergareses como Miguel Ignacio de Olaso, Vicente de Lili y Joaquín Ignacio de Moya. En resumen, el Plan se lamentaba del atraso que existía en relación con distintos países de Europa y propugnaba la necesidad de estudiar, trabajar, investigar y fo-

